

Ez dugulako behar, AHT STOP

Guretzat batere lehentasunik ez duelako, are gehiago, beharrezkoa ez delako, premia duten beste hainbat gauzetarako ezinbestekoa den dirua xahutzen ari delako, ekonomikoki bideragarria inoiz ez delako izango, etengabeko zama izanik, eta Ingurune Naturalean suposatzen ari den inpaktu handiarengatik, Haritzalde Naturzaleen Elkartek bat egiten du larunbat honetan, ekainaren 13an, Donostiako Alderdi Edertik 17:30etan abiatuko den Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioarekin, eta dei egiten diegu kide eta naturzale guztioi, bertan parte hartzera gonbidatuz.

Hain aberatsak al gara?

Murrizketen garai honetan, osasun sistemaren kalitatea okerrera egin duen honetan, gizarte gastuak premia oso behar duten honetan, nola xahutu daiteke dirutza hori bakar batzuen pribilegiarako? AHT ezin da lehentasuna gisa saldu, izatekotan, populazioaren %1aren beharra baino (eta askoz jota) denean. Luxu bat da, inpaktu itzelak sortzen dituen eta oso garestia aterako zaiguna. AHT gelditzeko lehen arrazoia horixe da, ez da herritarron lehentasuna. Aitzitik gehienok erabiltzen dugun garraio publikoan, populazioaren gehiengo zabal bati ezinbestekoa zaiona, sekulako gabeziak ditugu. Hemen, gertu, herriak eta auzoak komunikatzen zer hobetu badago, eta asko gainera. Horrek bai eragingo luke trafikoan eta denon bizi kalitatean. Orduan zergatik ez jarri hori garraio lehentasunetan. Eta okerrena da hartzen ari garen oraingo zorra etorkizuneko zama gertatuko zaigula, noizbait lanak bukatuta ere, mantentzeko, funtzionamendurako, dirua jartzen jarraitu beharko baitugu. Erakutsi nahi dugun aberats itxura hori, egunero, kaleetan ikusi nahiko genuke, duintasuna gizarte osoan zabaltzen dela baieztatuz.

Joko garbia ez, ezkutua esan liteke. Iruzurra?

Ez dakigu zenbat gastatu den orain arte, ez dakigu zenbat kostatuko zaigun obra, ezta nola amaituko den pelikula inguruko loturekiko edota hirien sarreren xehetasunak. Obra osagarrien inguruan ezer gutxi hitz egiten da eta mantentzea zein erabilerak zenbat diru eramango duen ez dute argitu. Hala ere,

aurrera egiten du. Hamaika gezur eta bertsio aldaketa entzun ditugu. Ibilbidea dela, loturak direla, tren mota eta abiadura dela. Norbaitek argi al du zertan geratuko den dena? Herritarrok ez behintzat. Taxuzkoa al da Erkide barneko luxuzko tren azkar bat? Prezioa edozein dela ere? Edonola? Baina obrak aurrera doaz.

Berdez margoturiko obra EZ iraunkorra.

Trena garraio iraunkorrenetakoa bada ere, Abiadura Handiko Trena beste muturrean dago. Segurtasunerako bete behar duten baldintzak direla medio ingurumen gaineko inpaktu handiak sortzen dituelako, herrien eta eskualdeen arteko desorekak areagotu egiten dituelako, bideragarritasun ekonomikoa zalantzazkoa delako funtzionamenduan ere, eta ibilerak energia gastu handia suposatzen duelako besteak beste. Ez da erraz ulertzen, tranpa eta iruzurra tarteko ez bada behintzat, hainbeste puntutan zehaztu gabeko hain proiektu handiak nola eduki dezaken aldeko ingurumen inpaktu ebaluaketa. Zatika ibilbidea zehaztuta izan gabe, moldaketa ugariekin, hirien sarrerek definitu eta onartu gabe, loturak airean, fikziozko aurrekontu batekin, eta hala eta guztiz ere bedeinkapen berdea lortu. Lotsagarria!

Horregatik guztiagatik, eta askoz ere gehiagoregatik, Haritzalde Naturzaleen Elkartea larunbat honetan Donostiako manifestazioan izango da.

**“AHT GELDITU ORAIN! XAHUKETA GEHIAGO EZ! HERRITARROK
ERABAKI”**